

Gorbeialdeko Kuadrillako berdintasun arloko lan txostena

2018ko urtarriletik- 2018ko abendura



Araitz Palacios Landera

Gorbeialdeko Kuadrillako berdintasun teknikaria

AURKIBIDEA

I Atala- Berdintasun politikak Gorbeialdeko Kuadrillan

II Atala- Berdintasuna lortzeko esku-hartze arloak

- I Ardatza- Gobernu ona
- II Ardatza- Emakumeen jabekuntza
- III Ardatza- Emakumeen kontrako indarkeriak eta beste indarkeria matxista batzuk
- IV- Ardatza- Zaintzen kultura eta antolamendu berria

III Atala- 2018ko Plan Operatiboaren betetze maila eta iraganeko erronkak

3.1- 2018rako Kuadrillako Plan Operatiboaren betetze mailaren ebaluazioa

3.2- Iraganeko erronkak

I ATALA- BERDINTASUN POLITIKAK GORBEIALDEKO KUADRILLAN

Aitzindariak

Berdintasun zerbitzuaren **helburua** Gorbeialdeko Kuadrillan, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunaren sustapena da. Hau sustatuz, eta antolatu beharrekoak diren luzerako baldintzak sortuz kuadrillako estrategia bat lortzeko.

Horretarako, **2016tik berdintasun zerbitzuak 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, dituen funtzioak betetzen ditu.**

Besteak beste hurrengoak:

- Berdintasunaren alorrean programak eta plangintzak diseinatzea, bai eta horiei dagozkien jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere.
- Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatu eta sustatzea.
- Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen lana bultzatzea, maila guztietan eta fase guztietan.
- Bakoitzak bere administrazioko sailei eta beren mendean dauden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruz aholkularitza ematea eta lankidetzan aritzea.
- Bakoitzari dagokion lurralde eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio-jarduerak egitea, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez, bereizkeria anitzeko egoerak aintzat hartuta.
- Bakoitzak bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitzeko eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatzeko.

- Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzen laguntzeko gizarte-baliabide eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezen proposamenak eta sustapen-lana egitea.
- Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak diseinatzea eta sustatzea.

Bestalde, **Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie, bai banaka, bai partaide diren udal mankomunitateen bidez edo lege honetako xedeetarako eratzen dituzten mankomunitateen bidez, ondoko eginkizunak betetzea:**

- Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera
- Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- Toki-eremuan programak egitea, Jaurlearitzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.
- Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- Toki-araudia nolako den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.

- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
- Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
- Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokkeen beste edozein eginkizun betetzea.

II ATALA- BERDINTASUNA LORTZEKO ESKU-HARTZE ARLOAK

Berdintasun teknikariaren lana 4 ardatzetan banatuta dago, aldi berean ardatz hauek ildo estrategikoetan banatu ohi dira *Arabako gizonen eta emakumeen berdintasunerako IV. Foru Plana (2016-2020)* eta *EAEko Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako VII. Plana (Emakunde)* oinarri izanda. Izan ere, gaur egun kuadrillak badauka berezko berdintasun Plana, baina oraindik Kuadrillako Batzarrak eta tokiko osoko bilkurek onartu behar dute.

<i>Ardatzak</i>	<i>Ildo estrategikoak</i>
<i>I Ardatza- Gobernu ona</i>	1.1 Emakume eta gizonen berdintasunerako egiturak
	1.2 Berdintasunean gaitzeko prestakuntza
	1.3 Barne kudeaketa eta lan prozedura komunak
	1.4 Politika publikoetako parte-hartzea
<i>II Ardatza- Emakumeen jabekuntza</i>	2.1 Emakumeen ahalduntze pertsonalerako laguntza
	2.2 Emakumeen ahalduntze kolektiborako laguntza
	2.3 Emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza
<i>III Ardatza- Emakumeen aurkako indarkeria eta beste indarkeria matxista batzuk</i>	3.1 Indarkeriaren zuzeneko adierazpenak
	3.2 Indarkeriaren egiturazko

**IV Ardatza- Zaintzen kultura eta
antolamendu berria**

adierazpenak

**3.3 Indarkeriaren adierazpen kulturak
eta sinbolikoak**

**4.1 Zaintzekin erantzunkide den gizarte
antolaketa bat**

I Ardatza- Gobernu ona

1.1 Emakume eta gizonen berdintasunerako egiturak

2018. urtean Gorbeialdeko Kuadrillako berdintasun zerbitzuaren garapen eta ezarpenaren 3. urtea izan da. Aurten, orain arte kuadrillan egindako berdintasun inbertsiorik handiena egin da, hau da, 2018rako Kuadrillako gastuen **aurrekontuetan** guztira 70.212,92 euro esleitu dira berdintasun zerbitzurako, hau da, Kuadrillako aurrekontu osoaren 5,77% (1.216.995,01 euro). Horietatik 19.600 euro, Gorbeialdeko Kuadrillako I Berdintasun Plana eta beste berdintasun ekintza batzuk egiteko erabili dira.

Berdintasun egituren koordinazioari dagokionez, batzuk jada sortuak zeunden, hala nola Jarraipenerako Mahai Politikoa edo Gorbeialdeko berdintasun Foroa. Hauek, normaltasun osoz garatu dira. Gainera, Vitoria-Gasteizen ospatutako Arabako Berdintasun Kontseiluko urteko bi deialdietan ere parte hartu da, Gorbeialdeko Kuadrillako ordezkari gisa.

Jarraipenerako Mahai Politikoa, 2018an behin bildu da, 2018/11/22an hain zuzen ere, etorkizuneko Kuadrillako I Berdintasun Planaren planifikazioa zehazteko. Bertan, 6 udaletako 4 ordezkari hartu zuten parte, Lehendakariak, berdintasun zerbitzuak eta laguntza teknikoa ematen duen enpresak. Berdintasun Foroari dagokionez, urtarrilean

Zuian bildu zen, apirilean Urkabustaizen, azaroan Zuian eta berriz ere azaroan Zigoitian, bertako tokiko berdintasun Taldearekin bat eginez.




Gorbeialdeko berdintasun Foroaren deialdia. 2018ko azaroa, Zuia.

Lehen aipatu den bezala, aurten burututako lan prozesurik handiena eta garrantzitsuena **tokiko berdintasun Planen eta Gorbeialde mailan aurrera eramandako berdintasun politiken ebaluazioa izan da, eta baita Gorbeialdeko Kuadrillako emakume eta gizonen berdintasunerako I Plana ere (2019-2022)**. Proiektu horrek 18.089,23€ko kostua izan du, Emakunde- Emakumearen Euskal Erakundeak kostu osoaren 75% diruz lagundu du, eta Arabako Foru Aldundiak beste 25%. Proiektu hau egiteko, Red Kuorum enpresaren laguntza teknikoa jaso da.

Laburbilduz, hurrengo hau izango litzateke iraila eta abendua bitartean aurrera eramandako lana:

1. Lana antolatu eta proiektua martxan jarri
2. Landa lana udal zein Kuadrillako langileekin eta elkarteekin
3. Ebaluazioa, pertsona onuradunekin eta elkarteekin
4. Ebaluazioa, dokumentua osatu eta aurkeztu
5. Kuadrillako berdintasun zerbitzuarekin kontrastea
6. Planifikazio tailerrak pertsonal politiko eta teknikoarekin
7. Planifikazioa pertsona onuradunekin eta elkarteekin
8. Kuadrillako emakume eta gizonen arteko I Berdintasun Planaren erredakzioa



Abenduaren 14an ebaluazioaren eta I berdintasun Planaren zirriborroak Emakunderi bidali zizkion Kuadrillak, dokumentua oraindik ere zirriborroa delarik.

1.2 Berdintasunean gaitzeko prestakuntza

Kuadrillako eta udal pertsonal politikoari eta teknikoari emandako formakuntza, alde zuzenetik egindako aurreikuspenak baino laburragoa izan da, izan ere, AFAk aurreikusita zituen 2018rako formakuntza saioak ez ditu gauzatu.

2018an gauzatutako formakuntza:

Kuadrillako pertsonal teknikoa- 8 lagun	Irailak 18 (3 ordu)	Oinarrizko kontzeptuak eta mainstreaming
Zigoitiko herrian lan egiten duen pertsonal teknikoa- 7 lagun	Urriak 24 (2 ordu)	Oinarrizko genero indarkeria adingabeetan

Abenduan, Guraso Elkarteetako eta hezkuntza arloko langileentzat oinarrizko indarkeria matxistari buruzko formakuntza bat proposatu zen, baina azkenean bertan behera utzi behar izan zen parte-hartze eskasagatik. Berriz ere gauzatzen saiatuko gara 2019ko lehenengo hiruhilekoan.

Egiteke geratuko litzateke, 2019ra begira, idazkarietarako berdintasun formakuntza bideratzea, beraien lan arloan genero perspektiba txertatzen ikasteko.

1.3 Barne kudeaketa eta lan prozedura komunak

Barne kudeaketari eta lan prozedura komunen inguruan, hurrengo udaletako diru-laguntzetan berdintasun klausulak sartu dira:

- Legutio
- Urkabustaiz
- Zigoitia

- Zuia

Aramaion, udalak ematen dituen diru-laguntza guztien analisia egin zen eta berdintasun klausulak sartzeko txosten bat egin zen, 2019an kontuan izango dutelarik.

Baina, datuen sorkuntzan eta analisisian sexuaren arabera aldagaia espero zena baino txikiagoa izan da. Gaur egun, bakarrik kultura eta kirol arloetan izaten ohi da sistematikoa, beste arlo batzuetan saiakera txikiak egiten dira, hala nola garapen ekonomikoan edo turismoan, baina ez da orokorra. Gai hau hurrengo urteetan zehar lantzen jarraitu beharra dago.

1.4 Politika publikoetako parte-hartzea

Aurreko 1.1 atalean aipatu den bezala, Kuadrillako berdintasun Foroa poliki-poliki gauzatuz joan da, baina bilera batzuetan parte-hartzea eskasa izan da.

Honetaz gain, bestelako parte-hartze espazioak existitzen dira Gorbeialdeko berdintasun politikak diseinatzeko eta garapenean eta ebaluazioan parte hartzeko, adibidez **Zigoitiko berdintasun Taldea**. Aurten, martxoaren 3an bildu zen eta 10 emakumek parte hartu zuten martxoaren 8a antolatzeko, eta beste behin azaroaren 28an, Josebe Iturrioz eta Irantzu Varela dinamizatzaile gisa izanda, Gorbeialdeko berdintasun Planeko prozesu parte hartzailearen harira.

Gainera, Aramaion urte hasietan tokiko **talde feminista** bat sortzen hasi zen. Talde hau noizbehinka biltzen da eta udalarekin ekintza desberdinetan hartu du parte, adibidez, *“jaietan eraso sexistarik ez”* edo *“azaroak 25”* kanpainetan, gainera I berdintasun Planaren planifikazio bilerara ere etorri ziren.

Azkenik, eta EAEko erakundearen arteko koordinazio espazioei dagokionez, kuadrillako berdintasun zerbitzuak hurrengo hauetan parte hartzen du modu aktiboan:

Parte hartze espazioa	Deskribapena
AFA/Arabako berdintasun Teknikarion	Hilabetero bilerak AFArekin eta Arabako

sarea	berdintasun teknikariek
Berdinbidean	4 bilera
Berdinsarea- EUDEL	6 bilera
Emakunde	2 bilera
G.K emakumeen arreta hotzeko erakunde arteko Koordinazio Protokoloa	Bilera 1

2018an, jauzi handi bat eman da koordinazio espazioen parte hartzeari dagokionez. Izan ere, Zuia eta Zigoitia urte hasieratik **Berdinsarean- Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sareko** kide bihurtu dira, Legutiok ere eskaera bidali du eta orain erantzunaren zain dago. Azkenik, Aramaio beharrezkoak diren dokumentu guztiak prestatzen ari da Sarean sartzeko. Arratzua-Ubarrundia eta Urkabustaiz ezin izango dira momentuz sartu, betebeharrak betetzen ez dituztelako.

II Ardatza- Emakumeen jabekuntza

2.1 Emakumeen ahalduntze pertsonalerako laguntza

Neurririk garrantzitsuena eta eraginkortasun handia izan duena emakumeen jabekuntzaren garapenean **Laia Eskola- Arabako emakumeon jabekuntzarako eta berdintasunerako eskola** izan da. Hau, 2018ko urtean zehar Gorbeialdean garatzen jarraitu da. Hau guztia, AFAko laguntza zuzenaren eta zeharkakoaren bitartez, giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen bitartez.



“Towanda Rebels” ekintza. Zigoitia, 2018ko ekaina.

Hona hemen 2018. urtean zehar Laia Eskolaren bitartez kuadrillan eta udaletan garatutako ekintzak:

ARAMAIO	
Zinegoak 2018 – zine-forum	Martxoa
Beldur barik gunea	Uztaila
Euskarazko autodefentsa feminista tailerra	Azaroa
Zine-forum	Azaroa
ARRATZUA-UBARRUNDIA	
Berdintasunerako ipuin kontaketa	Martxoa
LEGUTIO	
Berdintasunerako ipuin kontaketa	Martxoa
“gel de lucha” antzerkia	Azaroa
Euskarazko autodefentsa feminista tailerra	Azaroa
URKABUSTAIZ	
Solasaldia eta kontzertua	Martxoa
Zinegoak 2018 – zine-forum	Maiatza
“Emakumeentzako oinarrizko mekanika” tailerra	Urria
“Afrika berdintasunera” tailerra	Azaroa

ZIGOITIA	
Bertso saio musikatua	Martxoa
Zine-forum	Maiatza
“sare sozialak genero perspektibatik” tailerra Gaztelekuan	Maiatza
Hitzaldi/solasaldia Towanda Rebels	Ekaina
Beldur barik gunea	Iraila
III Jardunaldi feministak	Urria
Gorbeialdeko I berdintasun Planerako dinamika parte hartzailea	Azaroa
ZUIA	
Teresa Ibañezi omenaldia	Martxoa
“bularreko minbiziaren prebentzioa” hitzaldia	Apirila
“Emakumeentzako lidergo” tailerra	Maiatza
AFAren proiektuaren aurkezpena “emakumea eta kirola”	Ekaina
Argazki animazioa	Iraila
“sare sozialak genero perspektibatik” tailerra Gaztelekuan	Urria
“Adierazpen ez bortitza” tailerra	Urria
Gorbeialdeko I berdintasun Planerako dinamika parte hartzailea	Azaroa
Virgen de Oro ikastetxearekin eta IES Murgiarekin ekintzak	Azaroa

Hortaz, Laia Eskolak Gorbeialdean 30 ekintza baino gehiago bideratu ditu.



Gorbeialdeko Kuadrillako XXIII. Topaketa. Legutio, 2018ko ekaina.

2.2 Emakumeen ahalduentze kolektiborako laguntza

Puntu honetan berriro ere Gorbeialdeko Foroari buruz hitz egin genezake, elkarteen arteko eta mugimendu feministaren arteko lana bultzatu duelako, baina batez ere arlo honetan hitz egingo dugu berdintasun zerbitzuari buruz. Hau da, emakumeen ahalduentze kolektiboa batez ere gauzatu da berdintasun zerbitzuaren errealitatearen ezagutzagatik, elkarrekin, baliabideekin eta mugimendu feministarekin duen lankidetzaz bultzatu duelako, bata eta bestea harremanetan jarriz. Hori argi eta garbi ikusi dezakegu joan den urteko martxoaren 8an. Bertan, Urkabustaizko, Zigoitiko eta Zuiako emakumeak batu ziren, aldez aurretik harremanik ez zutenak.



Martxoak 8. Zigoitia, 2018ko martxoa.

Bestalde, nahi bezain beste garatu ez dena, eta 2018ko Plan Operatiboan aipatzen dena, Laia Eskolaren bitartez formakuntza feministarako gune edo espazio bat sortzea da. Hau da, emakumeek, banaka edo elkartean bitartez, jabeakuntza feministarako ekintzak planifikatzea, Laia Eskola baliabide baliagarri bezala izanda. Hau, hainbatetan lortu da, baina gehienetan ez.

2.3 Emakumeen ahalduzko sozial eta politikorako laguntza

Arlo hau ez da, aurreikusita zegoen bezain beste garatu. Hau da, aurreko Gorbeialdeko Kuadrillako berdintasun zerbitzuak aukera gutxi izan du **Kontzejuekin** lan egiteko. Laburbilduz, urtean zehar hauekin egindako lana hau izan da:

- Arratzua-Ubarrundia: uda garaiko jaiak baino lehen Kontzeju guztiei bidali zitzaizkien dokumentu bat jai parekideak sustatzeko irizpideekin.
- Zuia: Murgiako Kontzejuarekin elkarlanean, herriko jaietan indarkeria matxista prebenitzeko informazio karpak jarri zen, eta Kontzeju guztiei bidali zitzaizkien dokumentu bat jai parekideak sustatzeko irizpideekin.
- Emakundeek diruz lagundutako Mentxu Ramiloren ikerketan parte hartu dute, *“Arabako Kontzejuetako emakumeen parte hartze soziopolitikoak”* lanean, hain zuzen ere, bai berdintasun teknikariak, eta bai Kuadrillako kontzejuetako hainbat emakumek.

Emakume politikarien elkartze, hausnarketa eta formakuntza espazioei dagokienez, **Virginia Wolf Basque Eskolarekin** lankidetzan jarraitu da. Deialdiak sozializatzen, publikatzen eta Gorbeialdeko emakume politikarien parte hartzea bultzatzen.

III Ardatza- Emakumeen aurkako indarkeria eta beste indarkeria matxista batzuk

3.1 Indarkeriaren zuzeneko adierazpenak

“Gorbeialdean indarkeria matxistaren biktimen arreta hobetzeko erakunde arteko koordinazio protokoloari” dagokionez, hau Kuadrillako Batzarrean 2018ko urtarrilean onartu zen, ekarpenak jaso, aldatu eta berriro ere Zuian uztailaren 4an egindako Kuadrillako Batzarrean onartu zen. Baina, gaur egun, oraindik ere, Ertzaintza eta Osakidetzak, hau da, Protokoloa sinatu behar duten beste bi Entitateek ez dute berau onartu. Protokoloa sortu zenetik, bi Entitateek hainbat aldaketa proposatu dituzte, eta guztiak jaso dira. Hauek denbora epe desberdinetan egin dituzte, batzuk hilabete batzuetan, eta beste batzuk beste hilabete batzuetan.

Hala ere, Gorbeialdeko Kuadrillatik, hau da, oinarrizko gizarte zerbitzuetatik eta berdintasun zerbitzuetatik, 2018ko urte hasierarik lanean ari gara, aldeztu aurretik esistitzen ez zen lankidetzan eta koordinazioan, Protokoloak ezartzen zuen bezalaxe. Oinarrizko gizarte zerbitzuak indarkeria jasaten duten emakumeen datu ez pertsonalak berdintasun zerbitzuari pasatzen dizkio, eta honek informazioaren sistematizazioa egiten du. Gainera, eta kontuan hartuta berdintasun zerbitzuari dagokiola prebentzio lana, honek oinarrizko gizarte zerbitzuei eta gizarteratze teknikariari bidaltzen dizkie genero indarkeria jasaten duten emakumeentzako eta beraien seme-alabentzako interesgarriak izan daitezkeen tailerrak eta ikastaroak. Baina, lankidetzan hau indartu beharra dago, izan ere, oso deribazio gutxi gertatzen dira.

Ekainean, eta lehen aldiz, berdintasun zerbitzuak Protokoloaren Koordinazio Mahaiari bilkura deialdia helarazi zion. Bertara, oinarrizko gizarte zerbitzuetako kideak,

Osakidetzak, Kuadrillako Lehendakaria eta Zigoitiko, Urkabustaizko, Aramaioko eta Arratzua-Ubarrundiko ordezkariak etorri ziren. Deialdia, Kuadrillako udal guztiei helarazteaz gain, Ertzaintzari ere luzatu zitzaion, baina azken hauek ez ziren etorri, oraindik ere Protokoloa sinatu barik dutelako.

Bilera horretan, Protokoloaren aurkezpena egin zen, helburuak eta bestelakoak aipatuz, eta bide batez aldaketa proposamen bat helarazi eta aintzat hartu zen. Gero, hau, Kuadrillako batzarrera eraman zen. Gainera, berdintasun teknikariak, oinarrizko gizarte zerbitzuarekin lankidetzan, genero indarkeria eta indarkeria sexuala jasotzen duten emakumeen datu ez pertsonalak jasotzeko fitxak aurkeztu zituen, data horretara arte jasotako kasuen azalpenekin batera.

3.2 Indarkeriaren egiturazko adierazpenak

2018ko Plan Operatiboak arlo honetarako jasotzen zituen ekintzak gutxi garatu izan dira, arazo konkretu batengatik, ez Osakidetzak eta ez Ertzaintzak **Protokoloa** berretsi ez dutelako. Hortaz, hau ez da bete osotasunean aplikatzen ari.


Abenduaren 19an berdintasun teknikariak Amaia Sáenz de Ormijana gure Kuadrillarako Arabako OSiko arduradunari deitu zion. Honek, jakinarazi zion Protokoloa zerbitzu juridikoetan geldirik dagoela, eta ez dakiela noiz egingo duen aurrera.

Bestalde, aurten, arlo honi buruzko formakuntza Kuadrillako zein udaletako pertsonal teknikoari, eta baita Zigoitiko kultur etxeko langileei ere eman zaie. Bi formakuntzak Zigoitian egin ziren.

Zigoitiko kultur etxeko langileei formakuntza (20 o)	Berdintasuna eta genero indarkeria detektatzeko gaitasunak	Zigoitiko kultur etxeko zuzeneko langile guztiei
Zigoitiko udalen lan egiten duten langileei formakuntza (4 o)	Adingabeetan ematen den genero indarkeria detektatzeko gaitasunak	Parte-hartzaile kopurua: 9 pertsona

3.3 Indarkeriaren adierazpen kulturak eta sinbolikoak

Gazteek indarkeria matxistak detektatzeko eta aurre egiteko baliabideak garatzen lagundu da, adibidez: autodefentsa feminista tailerren bitartez, kartelen edota triptikoen bitartez, Emakundeko Beldur barik programaren sozializazioaren bitartez eta jaietan jarritako informazioa guneen bitartez.



Autodefentsa feminista tailerraren kartela. Aramaio, 2018ko azaroa.

Bestalde, Kuadrillako bi institutuek AFAko **“hitz kolpez”** programan parte hartu dute, IPI Ikasbidea (Arratzua-Ubarrundia) eta IES Murgia (Zuia). Bi kasuetan programak balorazio oso onak jaso ditu. Legutioko Garazi Eskola Publikoak ere **Emakundeko Foroan** parte hartu zuen, bertan LHko ikasleek berdintasun/hezkidetza tailerrak jaso zituzten.

LGTBIQ+ Kanpainei dagokionez, Gorbeialdeak *Zinegoak Bilboko Gaylesbitrans Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdian* parte hartu du. Bertako filmak Aramaion eta Urkabustaizen proiektatu ziren.

IV Ardatza- Zaintzen kultura eta antolamendu berria

4.1 Zaintzekin erantzukide den gizarte antolaketa bat

Ardatz hau, urteak pasa ahala, garapen eskasena izan duen ardatza da. Hala ere, aurrerapauso batzuk egin dira.

Adibidez, berdintasun zerbitzuak zein oinarrizko gizarte zerbitzuek AFA egiten ari den **Pobreziaren feminizazioari buruzko Ikerketan** parte hartu dute, hainbat bileraren bitartez. Aurreikusten da ikerketa hau 2019. urtean publikatu eta Arabako Kuadrilletan aurkezpen bana egitea.

Azkenik, aipatu beharra dago, udal batzuetan arazoak egoten direla **kontziliazioa** garatzeko, haurtzaindegi eta garraioa zerbitzua eskaintzerako orduan. Nahiz eta hauek gaur egun oso erabiliak ez izan, emakumeentzako akzio positibo bezala ikusten dira. Udal batzuk ordea ez dute horrela ikusten, eta ezezkoak edo trabak jartzen dituzte zerbitzu hauek eskaintzerako orduan, batzuetan AFAk berak bere gain hartu du zerbitzu hau. Egoera horri aurre egiteko, Gorbeialdeko berdintasun Plan berriaren ardatzetako batek bi zerbitzuen garapena jasotzen du.

III Atala- 2018ko Plan Operatiboaren betetze maila eta iraganeko erronkak

3.1- 2018rako Kuadrillako Plan Operatiboaren betetze mailaren ebaluazioa

2018ko urtarrilean Kuadrillako Batzarrean onartutako Plan Operatiboa:

Legenda:



Betetze-maila altua



Erdizkako betetze-mailaa



Betetze-maila baxua

I Ardatza- Gobernu ona


1.1 Emakume eta gizonen berdintasunerako egiturak

- Berdintasun unitatea gauzaten eta sendotzen jarraitu.
- Gorbeialdeko Kuadrillak berdintasunean duen konpromisoa handitzen jarraitu.
- Berdintasun egitura sortu eta koordinatu: AFAko Foroa, Koordinaziorako Mahai Politikoa eta Gorbeialdeko berdintasun Foroa.
- Tokiko berdintasun planen ebaluazioa eta Gorbeialdeko Kuadrillako emakume eta gizonen berdintasunerako I Planaren sorrera eta garapena.


1.2 Berdintasunean gaitzeko prestakuntza

- Pertsonal politiko eta teknikoak berdintasun arloko gaitasuna duela bermatzea.
- ALT langile tekniko eta politikoentzako formakuntza espazioak bultzatu eta hauekin bat egin.
- Langile teknikoei formakuntza eskaini, batez ere idazkariei.

1.3 Barne kudeaketa eta lan prozedura komunak




- Ekintza eta prozesua administratiboek berdintasunarekiko inpaktu positiboa dutela bermatu. 

1.4 Politika publikoetako parte-hartzea



- Genero ikuspegitik politika publikoen antolatzea, garapen eta ebaluazioan gizartearen parte hartzea sustatu. 

II Ardatza- Emakumeen jabekuntza



2.1 Emakumeen ahalduntze pertsonalerako laguntza

- Nesken eta emakumeen autoestimua, autonomiaren eta autozaintzaren erreparazioan eta garapenean lagundu. 
- Emakumeengan genero kontzientzia sustatu. 
- Landa eremuan bizitzea diskriminazio-egoera ez izateko baldintzak sustatu. 

2.2 Emakumeen ahalduntze kolektiborako laguntza


- Emakume mugimenduekin bat egin. 
- Emakumeen gorputzak duten irudi estereotipatuarekin eta matxistarekin amaitu. 

2.3 Emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza

- Emakumeen mugimenduak, politika publikoetan duten eragina areagotzea. 
- Emakumeen parte hartze soziala eta politikoa sustatu eta honekin bat egin. 

III Ardatza- Emakumeen aurkako indarkeria eta beste indarkeria matxista batzuk

3.1 Indarkeriaren zuzeneko adierazpenak

- Landa eremuan ematen den emakumeen kontrako indarkeria ezagutu. 

- “Gorbeialdeko Kuadrillako indarkeria matxistaren biktimen arreta hobetzeko erakunde arteko koordinazioa protokoloa” martxan jarri. 🟡

3.2 Indarkeriaren egiturazko adierazpenak

- Zerbitzu publikoen eragina hobetu, biktimizazio bikoitzak eta hirukoitzak ekiditeko. 🟠
- Esku-hartzeen koordinazio-mekanismoak sortu eta Protokoloen aktuazioak hobetu. 🟡

3.3 Indarkeriaren adierazpen kulturak eta sinbolikoak

- Gizonek emakumeen kontra izaten duten indarkeria matxistaren eta edozein motatako indarkeria matxistaren kontrako arbuio sozial eta instituzionala handitu. 🟢
- Indarkeria matxistan oinarritzen den eredu sozial eta kultura berrikuspena sustatu. 🟢
- Gizonek indarkeria matxisten kontra izaten duten jarrera aktiboagoa izatea sustatu. 🟡

IV Ardatza- Zaintzen kultura eta antolamendu berria

4.1 Zaintzekin erantzukide den gizarte antolaketa bat

- Gorbeialdeko Kuadrillako emakume eta gizonen arteko I berdintasun Plana onartu eta garatu. 🟡
- Genero rolek eta estereotipoek sexuaren araberako lanean izaten duten ondorioak ezagutu. 🟠

3.2- Iraganeko erronkak

- Gorbeialdeko Kuadrillako emakume eta gizonen arteko I berdintasun Plana onartu eta garatu.

- Udaleko berdintasun politika gutxitu eta Kuadrilla ikuspuntua duten politikak sustatu.
- *“Gorbeialdeko Kuadrillako indarkeria matxistaren biktimen arreta hobetzeko erakunde arteko koordinazioa protokoloa”*, Ertzaintzak eta Osakidetzak onartu.
- Udaletako eta Kuadrillako idazkariei formakuntza eskaini, eguneroko lanean berdintasuna garatzeko baliabideak izan ditzaten, eta hau modu ohikoan eta zeharka gara dezaten.
- IV Ardatzaren-zaintzen kultura eta antolamendu berria gehiago garatu, adibidez, Udalen kontziliaziorako zerbitzuak bere gain hartzea, hala nola haurtzaindegij/ludoteka eta garraio zerbitzua.